

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko apirilaren 03an egindako bilkuran, bestek beste, honako erabaki hau hartu zuen:

KARABELEKO, ELKARTEAREN ALDEKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENA EMATEKO PROPOSAMENA

Hitzarmenaren xedea honako lan-ildoaren bidez garatuko da: 2025. urtean nekazaritza eskolaren garapenerako instalazio, azpiegituren eta instalazioen erabilpena, mantenua eta gastuetarako bideratzea. Kontutan izanda nekazaritza eskolak dituen helburuak honakoak direla, gizarte-kohesioa bilatzen du, kalte beratasun egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko prozesuen bidez, gizarte eta lan- ibilbideak bideratuz. Hernaniko nekazal eremuan kokaturiko Karabeleko elkartearen bidez Nekazaritza Eskolaren garapena eta nekazaritza ekologikoaaren sustapena garatuko da.

Ikusita, 2025eko otsailaren 24ean justifikaziorako dokumentazioa aurkeztu dutela, eta hau ontzat eman dela.

Kontuan hartu da Toki Garapen batzordeak 2025eko apirilaren 03an egindako bilera gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak AHO BATEZ **erabaki du**

Lehena.- Diru laguntza zuzena emateko Hernaniko Udala eta Karabeleko elkartearen arteko diru laguntza hitzarmena onartzea

Onuraduna: Karabel elkartea

Diru Kopurua 15.000

Aurrekontuko partida 01.1510.481.01.439.00.2025 Kopurua: 15.000,- (AD-514/2025).

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritz

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2025eko apirilaren 09an
Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiazta dezakezu azpiko QR kodea edo egoitza elektronikoen bitartez

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKU16240d15-8942-42aa-b041-acacdc871c08**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>